

## **DEIALDIA, HAUTAPROBEN BITARTEZ BI IZANGAI-ZERRENDA OSATZEKO, HAUR-ESKOLAKO ZUZENDARI LANPOSTUAN ARITZE ALDERA**

Deialdi honetara sartzeko bi bide egonen dira eta, hortaz, bi izangai-zerrenda independente eratu dira:

- Izangai-zerrenda bat prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran Haur Eskolako zuzendari lanpostuan aritze aldera (96/1997 FORU DEKRETUA, apirilaren 14koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen prestakuntza eta lanbide-hobekuntza errazten duena).
- Izangai-zerrenda bat aldi baterako kontratu bidez Haur Eskolako zuzendari lanpostuan aritze aldera.

Jarraian, bi deialdietarako betekizun espezifikoak eta komunak zehazten dira.

### **I. DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO, PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZIEN EGOERAN HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI LANPOSTUAN ARITZE ALDERA**

#### **OINARRIAK**

**Lehena:** Deialdia iragartzen da, izangai-zerrenda bat hautaprobek bitartez osatzeko, HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI lanpostuan prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritze aldera, Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoan aldiari-aldiari gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira, dauden hizkuntza-eredu desberdinetan.

**Bigarrena:** Hautatutako pertsonen deitzen ahalko zaie hala lanaldi osoan nola partzialen aritzeko, zerbitzuaren unean-uneko beharren arabera.

**Hirugarrena: Parte-hartzaileen betebeharrak.**

3.1. Deialdian parte hartzen dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Iruñeko Udalaren edota haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoak izatea, C edo D mailakoak edo taldekoak, eta ez edukitzea agorturik eskubidez dagokien gehieneko prestakuntza-aldia, 96/1997 Foru Dekretuarekin bat.
- b) Lanpostuan gutxienez hiru urte eman izana.
- c) Ez egotea borondatezko edo nahitaezko eszedentzian.
- d) Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean honako titulu hauetako bat edukitzea edo lortzeko maneran egotea: Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle-titulua, Eskolaurre-espezialitatean, edo bestela Maisu- edo Maistra-titulua, Haur Hezkuntzako espezialitatean, edo horien baliokide den Gradu-titulua, izangaia haur-hezkuntzako irakasle gisa lan egiteko gaitzeko balio duena.
- e) Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko da.

3.2 Deialdi honi dagokion Haur Eskolako Zuzendari lanpostua prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran betetzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izanen dute euskara berriazko betekizun gisa dituzten lanpostuetan aritzeko, baldin eta eskaerak aurkezteko mugaegunean Nafarroako Gobernuak ematen duen Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) badute, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa, eta, zehazki, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

3.3. Deialdi honi dagokion Haur Eskolako zuzendari lanpostuan prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izanen dute ingelesa berriazko betekizun gisa dituzten lanpostuetan aritzeko, baldin eta eskaerak aurkezteko mugaegunean B1 mailako ingelesezko titulua badute, edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren B1 mailaren ofizialki baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

3.4 Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute oinarri honen 3.1.d), 3.2 eta 3.3 apartatuetan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskaerak aurkezteko unean.

3.5. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola prestakuntzak dirauen bitartean ere.

### **Laugarrena: Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa**

Hautapen-prozesua ebazpen honetan bi deialdietarako onetsitako arau komunetan ezarritakoarekin bat eginen da.

### **Bosgarrena. Prestakuntzako izangaiei dei egitea.**

Izangaiei deitzea, eta, hala badagokie, prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeran aritzeko izendapena indarrean diren honako lege hauetan ezarritakoarekin bat eginen dira: apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua eta dagozkion aldaketak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –Iruñeko Udalean langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Aipatutako Erabakian berriaz ezartzen da prestakuntzarako zerrendak lehentasuna izanen duela aldi baterako kontrataziorako hautapen-probetarako deialdi publikoen bidez eratutako izangai-zerrendarekiko.

Halaber, izangaiek, kontratatuak izateko deia jasotzen dutenean, aurkeztu beharko dute Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko egiaztagiria, frogatzeko epai irmo baten bidez kondenarik jaso ez izana sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik.

## **II. DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO, HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI LANPOSTUAN ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZE ALDERA.**

### **OINARRIAK**

**Lehena:** Deialdia iragartzen da, izangai-zerrenda bat hautapoben bitartez osatzeko, HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI lanpostuan aritze aldera, Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoan aldian-aldian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira, dauden hizkuntza-eredu desberdinetan.

**Bigarrena:** Hautatutako pertsoneri deitzen ahalko zaie hala lanaldi osoan nola partzialean aritzeko, zerbitzuaren unean-uneke beharren arabera.

**Hirugarrena:** Parte-hartzaileen betebeharrak.

3.1. Deialdian parte hartzen dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Espainiarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikagarria duen eremuko estatu batekoa.

Halaber, espainiarren ezkontideek parte har dezakete, eta Europar Batasuneko beste estatu bateko herritarrenek zein aipatutako nazioarteko itunen esparruko beste estatuetako herritarrenek ere –betiere zuzenbidez bereizita ez badaude–; bai eta, orobat, haien ondorengoek eta ezkontideenek ere –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

- b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.
  - c) Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean honako titulu hauetako bat edukitzea edo lortzeko maneran egotea: Oinarritzko Hezkuntza Orokorreko irakasle-titulua, Eskolaurre-espezialitatean, edo bestela Maisu- edo Maistra-titulua, Haur Hezkuntzako espezialitatean, edo horien baliokide den Gradu-titulua, izangaia haur-hezkuntzako irakasle gisa lan egiteko gaitzeko balio duena.
- Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko da.
- d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea bete behar dituen eginkizunetan aritzeko.
  - e) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabeturik ez egotea, ezta inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik bereizita ere.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, edo hitz eman, adierazteko ez dutela, beren estatuan, Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapen edo kondena-penalik.

3.2 Deialdi honi dagokion Haur Eskolako zuzendari lanpostuan aritzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izanen dute euskara berariazko betekizun gisa dituzten lanpostuetan aritzeko, baldin eta eskaerak aurkezteko mugaegunean Nafarroako Gobernuak ematen duen Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) badute, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa, eta, zehazki, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

3.3. Deialdi honi dagokion Haur Eskolako zuzendari lanpostuan aritzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izanen dute ingelesa berariazko betekizun gisa dituzten lanpostuetan aritzeko, baldin eta eskaerak aurkezteko mugaegunean B1 mailako ingelesezko titulua badute, edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren B1 mailaren ofizialki baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

3.4 Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute oinarri honen 3.1.c), 3.2 eta 3.3 apartatuetan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskaerak aurkezteko unean.

3.5. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola prestakuntzak dirauen bitartean ere.

**Laugarrena:** Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa

Hautapen-prozesua ebazpen honetan bi deialdietarako onetsitako arau komunetan ezarritakoarekin bat eginen da.

**Bosgarrena:** Dei egitea aldi baterako kontrataziorako izangaiei.

Izangaiei deitzea, eta hala badagokie, haien kontratazioa honako arau hauetan ezarritakoarekin bat eginen dira: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia – langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren Xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua edo legeekin bat kautotua aurkeztuta.

### III. BI DEIALDIETARAKO ARAU KOMUNAK

**Lehena: Eskaerak aurkezteko epea**

Bi deialdietarako eskaerak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izanen da, deialdi hauek iragartzen dituen aipamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Deialdi honen testu osoa eskuragarri egonen da Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren <https://www.pamplona.es/escuelasinfantiles/> webgunean eta Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren bulegoan (Oliveto Kondearen etorbidea 4, 2. sol., Iruña).

**Bigarrena- Eskaerak**

Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek eskabidea telematikoki aurkeztu beharko dute, Interneten bidez, <http://www.pamplona.es/escuelasinfantiles> helbidean, deialdi honi dagokion aipamenean.

Eskaera aurkezteko, honako hauen bidez sar zaitezke: NAN elektronikoa / Ziurtagiri elektronikoa, Cl@ve PIN edo Cl@ve iraunkorra.

Parte hartzeko eskaerarekin batera, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Eskaerarekin batera, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, betiere ezertan galarazi gabe kontratatuak izateko deituak direnean jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuek edo legeekin bat kautotuek aurkezteko beharra:

1. NANaren fotokopia edo izangaiaren nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen dituen agiriarena, eta behar izatera, aldi baterako kontratazioetarako deialdiaren 3.1.a) oinarrian eskatutako nazionalitate- eta ahaidetasun-baldintzei buruzko agiriarenak.
2. Oinarrizko Heziketa Orokorreko irakasle-tituluaren fotokopia, Eskolaurre-espezialitatean, edo bestela Maisu- edo Maistra-tituluarena, Haur Hezkuntzako espezialitatean, edo horien baliokide den Gradu-tituluarena, izangaia haur-hezkuntzako irakasle-lanbidean aritzeko gaitzeko balio duena.
3. Euskararen Gaitasun Agiriaren (EGA) edo horren baliokidea den titulu baten fotokopia, halakorik behar izatera.
4. Ingeleseko B1 mailako tituluaren fotokopia, halakorik behar izatera.
5. Curriculum Autobarematua (I. ERANSKINA), bertan alegatu diren merezimendu guztien kopiekin batera.
6. Haur Eskola baten antolaketa-, funtzionamendu- eta kudeaketa-proiektua, gehienez ere 5.000 hitzekoa, Arial 12 letra eta 1,5eko espazioarekin. Proiektua aurkezten ahalko da Nafarroako Foru Komunitatean dauden edozein komunikazio-hizkuntzatan, PDF formatuan.

Agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta ordura arte haiek gauzatutako egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, eskaeran egindako faltsukeria dela-eta legokiekkeen erantzunbeharra ezertan galarazi gabe.

Eskaerarekin batera, desgaitasunen bat aitortuta duten izangaiek hori frogatzeko agiria –organo eskudun batek emana– aurkeztu beharko dute. Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eta kasu horretan aparteko agiri bat erantsi beharko dute azaltzeko zer-nolako desgaitasuna duten, eta eskatutako egokitzapenak.

Izen-emate eskubideengatik eta espedientea formalizatzeagatik ordaindu beharreko tasa **15 eurokoa** da. Tasa telematikoki ordainduko da, eskaera formalizatzeko unean, telematikoki ordaintzeko sistema seguru baten bidez, eta horren bitartez jasota geratuko da ordainketa hori egin dela.

Izen-emate tasa hori ordaindu ezean, izangaia bazterturik geldituko da.

Izen-emate eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskaera behar den epean eta moduan aurkeztu beharra.

### **Hirugarrena: Izangaien onarpena. Behin-behineko zerrenda eta behin betikoa**

Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta, izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda jendaurrean paratuko da, izena eta abizenak adierazita, Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren <https://www.pamplona.es/escuelasinfantiles/> webgunean.

Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta eskaeran egindako akatsak zuzentzeko, Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoan edo webgunearen bidez eskabidea aurkeztuta. <https://www.pamplona.es/escuelasinfantiles/>

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta haiek ebatzirik, Iruñeko Udalaren Haur Eskolen Erakunde Autonomoko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren webgunean argitaratzeko aginduko du. <https://www.pamplona.es/escuelasinfantiles/>

Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioaren

eskuetan dagoena aztertzean ondorioztatzen bada ez dutela betetzen eskatutako baldintzaren bat, interesdunek deialdietan parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte.

**Laugarrena: Probak.** Hautapen-prozesuak hiru proba izanen ditu, bi deialdietarako komunak. Proba bakoitzaren garrantzia eta ordena honako hau izanen da:

1. Proba psikoteknikoa: 20 puntu (% 20).
2. Haur Eskola baten antolaketa-, funtzionamendu- eta kudeaketa-proiektua: 50 puntu (% 50).
3. Curriculum Autobarematua: 30 puntu (% 30). Kontabilizatuko diren merezimenduak I. eranskinean jasotzen dira.

1. eta 2. faseak baztertzailleak izanen dira, eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira proba psikoteknikoan eta 25 puntu antolaketa-proiektuan. Beraz, curriculumaren baremazio-fasera igaroko dira bakarrik 1. eta 2. faseen artean gutxienez 35 puntu lortzen dituzten izangaiek.

Prozesu osoan gehienez ere 100 puntu lor daitezke.

#### **Bosgarrena: Proba psikoteknikoa egiteko data duten izangai onartuen zerrenda**

Onartuen behin betiko zerrendan proba psikoteknikoak noiz egingen diren argitaratuko da, eta egun eta toki berean izanen dira izangai onartu guztientzat.

Izaera baztertzaillea izanen duen proba psikoteknikoa egin ondoren, lortutako notak argitaratuko dira. Gutxienez 10 puntu lortzen ez dutenak ez dira hurrengo faseetara igaroko eta, ondorioz, hautapen-prozesutik kanpo geratuko dira.

Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute proba psikoteknikoaren puntuazioen aurka erreklamazioak egiteko, Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoan edo webgunearen bidez eskabidea aurkeztuta.  
<https://www.pamplona.es/escuelasinfantiles/>

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta haiek ebatzirik, Iruñeko Udalaren Haur Eskolen Erakunde Autonomoko lehendakariak proba psikoteknikoko izangai onartuen behin betiko zerrenda, eta ondorioz, hautapen-prozesuan jarraitzen dutenen zerrenda onetsiko du, eta Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren <https://www.pamplona.es/escuelasinfantiles/> webgunean argitaratzeko aginduko du.

#### **Seigarrena: Antolaketa-proiektuaren kalifikazioa**

Proba psikoteknikoen fasea amaitu ondoren, hautagai bakoitzaren Haur Eskola baten antolaketa-proiektua baloratuko da.

Antolaketa-proiektuaren kalifikazioa bi fasetan egingen da. Lehenengo fasean, noten zerrenda bat argitaratuko da, non proiektua baloratuko baita Deialdi honen jarraibideetan jasotzen diren puntu guztiak kontuan hartuta. Hori proiektuaren azken notaren % 75 izanen da. Epaimahai kalifikatzaileak zuzenketa itsua egingen du, eta puntuazio hori <https://www.pamplona.es/escuelasinfantiles/> webgunean argitaratuko da, proiektuaren azalpen eta defentsa publikoa egin aurretik.

Kalifikazioaren bigarren fasean, izangaiei haien proiektua azaltzeko eta defendatzeko deia egingen zaie. Azalpen horren nota, gehienez ere, proiektuaren azken notaren % 25 izanen da. Izangairen bat azalpen

eta defentsa publikora agertzen ez bada, hautapen-prozesutik kanpo geratuko da. Proiektuaren azalpen publikoa egiteko, gehienez ere, 10 minutu izanen dituzte.

Egun horretatik aitzina, izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute antolaketa-proiektuaren bi kalifikazioen aurka erreklamazioak egiteko, Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoan edo webgunearen bidez eskabidea aurkeztuta. <https://www.pamplona.es/escuelasinfantiles/>

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta haiek ebatzirik, Iruñeko Udalaren Haur Eskolen Erakunde Autonomoko lehendakariak izangaiei behin betiko zerrenda onetsiko du antolaketa-proiektuen puntuazioekin, eta Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren webgunean argitaratzeko aginduko du. <https://www.pamplona.es/escuelasinfantiles/>

Agiriak egiaztatu ondoren eta horren ondorioz zerrenda horretan baztertu gisa agertzen diren izangaiek ez dute hautapen-prozesuan jarraitzeko aukerarik izanen.

### **Zazpigarrena: Izangaiei zerrenda Curriculum Autobarematuaren ondoriozko puntuazioekin**

Proba psikoteknikoen fasea eta antolaketa-proiektuaren kalifikazioa gainditu duten izangaiei merezimenduak egiaztatuko dira Curriculum Autobarematuan aurkeztutako agiriarekin bat (I. eranskina), eta behin-behineko zerrenda bat argitaratuko da puntuazioekin, epaimahai kalifikatzaileak horiek berrikusi ondoren.

Fase horretan ezin izanen da agiri berririk aurkeztu, eta bakarrik erreklamatzeko ahalko da oker kontabilizatutako merezimenduen bat.

Egun horretatik aitzina, izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute Curriculum Autobarematuko merezimenduen puntuazioen aurka erreklamazioak egiteko, Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoan edo webgunearen bidez eskabidea aurkeztuta. <https://www.pamplona.es/escuelasinfantiles/>

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta haiek ebatzirik, Iruñeko Udalaren Haur Eskolen Erakunde Autonomoko lehendakariak Curriculumaren merezimenduen puntuazioen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren webgunean argitaratzeko aginduko du. <https://www.pamplona.es/escuelasinfantiles/>

### **Zortzigarrena: Epaimahai kalifikatzailea**

Prozesuaren garapen egokia, fase guztietan, bermatzeko eta gainbegiratzeko xedez Epaimahai kalifikatzailea eratuko da, honako hauek osatua:

Epaimahaiburua: Ana Sesma. Iruñeko Udaleko Haur Eskoletako zuzendari teknikoa.

Ordezkoa: Juan Ramón Rábade. Iruñeko Udaleko Haur Eskoletako zuzendari kudeatzailea.

1. epaimahaikidea: Nuria Goñi Oiz. Iruñeko Udaleko pedagogoa

Epaimahaikide ordezkoa: Maria Carmen Nuin Larraya. Iruñeko Udaleko pedagogoa

2. epaimahaikidea: Haur Eskolako zuzendaria, zehazteke.

Epaimahaikide ordezkoa: Haur Eskolako zuzendaria, zehazteke.

3. epaimahaikidea: Langile funtzionarioen Batzordeko ordezkarik bat.

Epaimahaikide ordezkoa: Langile funtzionarioen Batzordeko ordezkarik bat.

4. epaimahaikide-idazkaria: Erakunde autonomoko edo Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria.

Epaimahaikide-idazkari ordezkoa: Erakunde autonomoko edo Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria.

Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta Erakunde Autonomoko Gerentziari jakinarazi hori, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako aurreikusiak dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errefusatzeari, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

Epaimahaiaren osaera aldatzen bada, epaimahaikideek parte ez hartzeko edota haien errefusatzeko legez ezarritako kausak direla-eta, jendaurrean emanen da horren berri izangai onartuen eta baztertuen zerrendekin batera.

Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu da.

Epaimahaia ezin izanen da ez eratu, ez jardun gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe, ezta jardun ere epaimahaiburua eta idazkaria edo haien ordezkari direnak bertan ez daudelarik.

Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdien oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eska dezake proiektua ebaluatzeko. Aholkulari horiek haien espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta horietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

### **Bederatzigarrena: Hautatuen zerrenda.**

Behin proben kalifikazioa amaituta, Epaimahaiak Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren <https://www.pamplona.es/escuelasinfantiles/> webgunean argitaratuko ditu, bereizirik, honako zerrenda hauek:

- Prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritzeko deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren hurrenkeran eta hizkuntzetako baten ezagutza (euskara eta/edo ingelesa) egiaztatu duten izangai-gaindituak identifikatuz.
- Aldi baterako kontratazioari dagokion deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren hurrenkeran eta hizkuntzetako baten ezagutza (euskara eta/edo ingelesa) egiaztatu duten izangai-gaindituak identifikatuz.

Halaber, epaimahaiak aipatutako Erakundeari igorriko dizkio zerrendak, onets ditzan, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera.

Izangaiek lortzen dituzten puntuetan gerta litezkeen berdinketak Epaimahai kalifikatzaileak ebatziko ditu irizpide hauekin bat:

- a) Prestakuntzarako izangaien deialdia: berdinketarik gertatuz gero, Curriculum Autobarematuan lortutako puntuaziorik altuenaren arabera erabakiko da. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, zozketa bidez ebatziko da.



- b) Aldi baterako kontrataziorako deialdia: berdinketarik gertatuz gero, aurkeztutako kudeaketa-proiektuan lortutako puntuaziorik altuenaren arabera erabakiko da. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, zozketa bidez ebatziko da, eta berdinduta dauden izangaiei deituko zaie, zozketan egon daitezen.

Izangai-zerrendak izangaia deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, osasun-azterketa bat eginen zaie desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.

### **Hamargarrena: Izangaiei zerrendak eta dei egitea**

Behin jasota hautapen-prozesuaren espediente osoa, izangai-zerrendak onetsiko dira, izangaiei deituko zaien hurrenkeran, eta Erakunde Autonomoaren webgunean argitaratuko dira <https://www.pamplona.es/escuelasinfantiles/>

Ebazpen honek onesten dituen deialdien oinarriek ezartzen dutenarekin bat deituko zaie arau honek aipatzen dituen zerrendetako izangaiei, eta kasu guztietan bermatuko da prestakuntzarako izangaiek lehentasuna edukiko dutela aldi baterako kontrataziorako izangaiei aurretik. **Momentu horretan aurkeztu beharko dituzte deialdi honetako bigarren apartatuan aipatutako jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak edo indarreko legeekin bat kautotuak.**

Dei guztiak puntuazioaren hurrenkerarekin bat eginen dira, eta lanposturako eskatutako hizkuntza-eskakizuna kontuan hartuko da, indarrean den plantilla organikoan ezarritakoarekin bat.

Halaber, izangaiek, kontratatuak izateko deia jasotzen dutenean, Justizia Ministerioaren ezezko ziurtagiria aurkeztu beharko dute, Sexu-izaerako delituen ziurtagiriaren bidez.

### **Hamaikagarrena: Errekurtsoak**

Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtso hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Haur Eskolen webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsoak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal-organismoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

## **JARRAIBIDE OROKORRAK CURRICULUM AUTOBAREMATUA BETETZEKO**

- Eskaeraren apartatu guztiak bete beharko dira, baita I. eranskineko Curriculum Autobarematuarenak ere.
- Izangai guztiek Curriculum Autobarematua (I. eranskina) eginen dute, eta merezimenduak jarraibideetan jasotako puntuazioekin bat kalifikatuko dituzte. Puntuazio horiek prestakuntza, esperientzia, argitalpen, ikerketa eta abarreko merezimenduen balorazioa adieraziko dute, deialdia argitaratzen den egunera arte.
- Puntuatutako merezimendu guztiak egiaztatzeko agiriak Curriculum Autobarematuaren orriarekin batera aurkeztu beharko dira.
- Ezinbesteko prestakuntza Lanposturako eska daitekeen titulazioa da; hortaz, ez du punturik ematen.
- 1.2 apartatuan, eskakizun diren titulazioez bestelakoak, titulazio horiek aurkezten den lanpostuarekin edo haur-hezkuntzarekin lotuta egon beharko dute, eta baloratzen ahalko dira master, unibertsitateko aditu, hainbat espezialitate, goi-mailako graduako teknikari eta mota horietako prestakuntzak.
- Curriculum Autobarematuan kontabilizatzen diren ikastaro guztiek justifikatuta egon beharko dute, ordu kopurua eta ematen duen instituzioa jasotzen duen egiaztagiraren bidez, bestela, ez dira baloratuko.
- Jardunaldi eta Biltzarretara joan izana baliozkotuko da baldin eta dagokion ziurtagirian zehazten bada zenbat orduz eta noiz egin den.
- Curriculum Autobarematuan (I. eranskina) kontabilizatzen den prestakuntza, lan-esperientzia, argitalpen, ikerketa eta irakaskuntza oro ezinbesteko gutxieneko titulazioa eskuratu ondoren egina izan beharko da.
- Lan-esperientzia egiaztatu beharko da Gizarte Segurantzako Diruzaintzak ematen duen lan-bizitzaren agiriaren bidez, Administrazio publikoan emandako zerbitzuen ziurtagirien bidez, edo, halakorik ezean, lan-kontratuen kopien bidez. Agiri horiek ez badira aurkezten, lan-esperientzia ez da baloratuko. Kontuan izan lan-kontratu batek ez duela zehazten enpresa batean emandako denbora; horregatik, beti, LAN-BIZITZAREN agiria erantsi behar da, Gizarte Segurantzako Diruzaintzak emana.
- Langile autonomoa bazara edo izan bazara, laneko eskarmentua egiaztatu beharko duzu honako agiri hauekin:
  - Lan-bizitza, Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide berezian inskribatuta egotea beharrezkoa den kasuetan.
  - Jarduera Ekonomikoen Zergan (JEZ) alta emanda egotea eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean daudela egiaztatuzko frogagiriak.
- Bekak eta Gizarte Segurantzaren alta emanda egon gabe egindako praktikak ez dira kontabilizatuko ez prestakuntza ez lan-esperientzia gisa.
- Atzerriko titulu guztiak Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak homologatuta egon beharko dira.

- Irakaskuntza-jardueren kasuan, ez da eskatuko horiek Lan-bizitzan jasota egotea, baina bai eskatuko dela eskatzaileak emandako eskola-orduen edo kredituen egiaztagiria, irakaskuntza zentro ofizialak emana. Kreditu akademiko bat 10 eskola-orduren baliokidea da, eta ikasturte gisa zenbatu ahal izateko, gutxienez 50 eskola-ordu egiaztatu beharko dira.

### **PROBA PSIKOTEKNIKOARI BURUZKO JARRAIBIDEAK**

Proba psikoteknikoak proba estandarizatuak dira, izangai baten jokabideak, gaitasunak eta trebeziak neurtzeko balio dutenak, hura kontratatze aldera.

Izangai batek lanpostu bat betetzeko beharrezkoak diren gaitasunak edo ezaugarriak zein neurritaraino dituen jakiteko eta bete beharreko lanpostura nola egokituko den iragartzeko edo aurreikusteko erabiltzen dira.

Izangai onartu guztiak proba psikotekniko bat egiteko deituak izanen dira. Proba egin baino gutxienez 10 egun natural lehenago jakinaraziko da proba egiteko tokia eta data. Proba psikoteknikoetara identifikazio-agiri batekin joan beharko dute (NAN, pasaporte, gidabaimena); bestela, ezin izanen dira bertara sartu.

Proba psikoteknikora aurkezten ez diren izangai onartu guztiak deialditik kanpo geratuko dira, eta ezin izanen dute prozesuan jarraitu.

### **HAUR ESKOLA BATEN ANTOLAKETA-, FUNTZIONAMENDU- ETA KUDEAKETA-PROIEKTUARI BURUZKO JARRAIBIDEAK**

Haur Eskola baten antolaketa-, funtzionamendu- eta kudeaketa-proiektuak honako puntu hauek izan beharko ditu:

- a) Era daitezkeen organo, lantalde eta batzordeen osaera eta eginkizunak.
- b) Eskolako lanaldiaren banaketa eta zerbitzu bakoitzaren antolamendua.
- c) Harrera/Egokitzapen-aldia arautuko duten arauak.
- d) Familielikiko harremanen plangintza.
- e) Langileen antolamendu orokorra eta haien ordutegien banaketa.
- f) Instalazioen mantentze-lanetarako eta garbiketarako ikuskapen-irizpideak.
- g) Segurtasun- eta osasun-arauak.
- h) Eskolaren koordinazioa, Erakunde Autonomoarekin, gainerako haur-eskolekin eta inguruko zerbitzuekin.

Proiektuak gehienez ere 5.000 hitz izanen ditu, Arial 12 letran eta 1,5eko espazioarekin. Antolaketa-proiektua PDF formatuan entregatu beharko da.

Bi fase egonen dira antolaketa-proiektua baloratzeko. Lehenengo fasea zuzenketa itsua izanen da, eta guztizko puntuazioaren % 75 izanen da. Puntuazio hori proiektuaren aurkezpen eta defentsa publikoa egin aurretik argitaratuko da. Bigarren faseak proiektuaren guztizko puntuazioaren % 25 balioko du.